

## k:

## Kultura


**OIER ZUÑIGA**  
**AKTOREA ETA MARGOLARIA**

Etxean jokatzeko ari da Oier Zuñiga (1986) iruindarra. Bi eguez bete du Gaiarre antzokia «Zaldi urdina» obrak, euskal gatazkaren auzi ezberdinak jorrazten dituen antzezlanak. Zuñigak gertu ditu gatazka horren ondorioak, baina naturaltasunez azaleratzen ditu iraganeko pasarte eta irakaspenak. Arte Dramatikoaren eta Arte Ederren artean murgilduta, Durangoko Azokako kartela ere aurkeztu berri du.

## «Herri gisa gutaz hitz egiteko gai ez bagara, ez gara sekula libre izango»

Ibai AZPARRÉN | IRUÑEA

**«Zaldi urdina» obran euskal gatazkaren inguruko hainbat gai jorrazten dituzue: torturak, polizia eta, bereziki, drogak.**

Gure herriak sufrimendu asko izan ditu. Batzuetan, euskal gatazkaz hitz egin denean, garai batzuetako dramak kutxa batean geratu dira, bestelako gatazka batzuk gailendu direlako. Heroinaren fenomeno oso potentea izan zen Euskal Herrian, 20-30 urte arteko 5.000 gazte hil ziren heroinak eraginda, hiru milioi biztanleko herri txiki batean. Tragedia hori familien intimitatean ezkutatuta geratu zen, familiek eraman dute karga hori eta tabu hori azalera izan da asmoa. Zer komunitate gara, geure buruari gure tragediaren parte bat baino aitortzen ez baldin badiogu?

**«Zaila da libre izatea askatasuna ezagutu ez duen herri batean»; obraren esaldietako bat da. Herri honek zauri asko sendatu behar al ditu oraindik askatasun horretarako bidean?**

Bai, zalantzarik gabe. Baditugu min batzuk oso identifikatuak, baina min komunitario batzuk ez. Beste aldagai inportante bat da gatazka gertuago bizi edo ez, independentista izan edo ez, gatazkak Euskal Herriko edozein herritarren bizitza eta bizipen guztiak modu batean edo bestean zeharkatu dituela. Ni independentista izan naiteke eta gertuagotik mintzen naute gatazkaren ondorioek, baina oro har Iruñean edozein auzotan bizi denaren izaera eta nortasuna definitu eta egituratu du gatazkak. Etengabeko gatazka dago, oraindik konpondu ez dena.

**Ximun Fuchs zuzendariak adierazi zuen gauza bat idaztea dela baina gero aktore bakoitzak pertsonaiarekin egokitu**

**behar dela. Oier Jon pertsonaiari ongi egokitu zaio?**

Jon oso pertsonaia konplexua da. Niretzat opari bat izan da. Ez didate pertsonaia eman, sortu egin dugu. Inprobisazio batean atera nuen eta hortik eraikitzen joan da. Nigandik urrun dago, zeren nik ez dut droga asko kontsumitu, alkohola bai. Hala ere, uste dut Jonek gauza asko konstatzen dizkigula nigandik oso gertu daudenak. Oholtzan ikusten dugun Jon Oierrengandik gertu dago, zeren nire haragia da, nire gorputza, ahotsa, eta nire emozioak eta esperientziak dira oholtzan pertsonaiaren zerbitzura jartzen ditudanak. Oholtzan aktorea dago, pertsonaia, baita bien arteko elkarriketa eta gatazka etengabea ere.

**Nola iritsi zara ilustratzaile eta aktore izatera?**

Gogoan dut eskolaurrean ze ongi pasatzen nuen eskuekin margotzen. Garaiko hezitzaileekin harremana mantendu dut auzoan eta kontaktzen didate etengabe joaten nintzela mozorroren txokora. Orduan oso intuitiboa, inpulsiiboa, izan da txikitatik izan dudana harremana. Batxilergoa amaituta, Arte Ederrak ikastea erabaki nuen, eta gero Arte Dramatikoa. Zorionez, bi mundu horien artean bizi naiz.

**Zaila da horren alde apustu egitea?**

Askotan esaten didate lanbide ezegonkorra aurkitu dudala. Egia da sormenaren munduak arrisku batzuk dituela. Arrisku horiek gabe ez dut uste sormena posible denik. Azken horrek jartzen gaitu etengabeko bilaketa batean, etengabeko alerta batean. Gero egia da prekaritatea existitzen dela, gure lana oso gutxi baloratzen dela termino ekonomikoetan. Ni ezingo nintzateke ni neu izan eta bizi, ez banintz sorkuntzan biziko. Bai, ezegonkorra da, prekaritatea da-



ARGAZKIAK: Idola ZABALETA | FOKU

go, eta zuek, kazetariok? Eta iturginak? Eta garbitzaileak? Arazoa ez da ofizioa, baizik eta sistema. Horrek izena du eta kapitalismoa da.

**Torturak aipatu ditugu. Izan ere, 2009ko polizia operazio horretan atxilotzen zintuzten. Tratu txarrak sufritu zenituen eta urtebeteko espetxeratzeara. Nola markatu zintuen horrek?** Zalantzarik gabe, markatzen zaitu, bereziki inkomunikazioko lau egunek. Kartzela beste modu batean ikusten duzu, zure bizitza ez duzu arriskuan ikusten. Asko markatu ninduen ondorengo horrek denak: epaiketaren zain egoteak, zenbat urte egon gintezkeen kartzelan... Sentsazio horrek antsietate handi batean sartzen zaitu. Gaur egungo Oier den modukoa da hori ere gertatu zitzaizkizake. Heldu egin ninduela esan dezaket. Bizitzaren krudeltasunaren pare-parean jartzen zaitu. Pertsona hobea izaten lagundu dit, bizitzari bestelako miresmen eta errespetuarekin begiratzen.

**Instrukzio epailea Grande-Marlaska izan zen...**

Bere aurretik pasa nintzenen pentsatu nuen nirekin enpatikoa izango zela, edo sinetsiko zuela egia esaten ari nintzela, torturatua izan nintzela. Baina ikusi nuen nola hoztasunez kaleratzen zaituen, inongo sentipenik gabe. Orain Barne ministro gisa ikusten dudanean sortzen zait horrelako galdera bat: zer pentsatuko du tipo honek egin zuen horretaz guztiaz? Zer min utzi dio horrek? Ez dut nahi mendekurik, baina sortzen zait zalantza eta batzuetan irudimena pizten zaidanean berekin topatuko naizela eta galdetuko diodala imajinatzen dut.

**Gizarteak torturak isiltasunez onartu ditu?**

Ez dakit noraino gertatzen den, tabuekin bezala. Inork ez du kutxa hori ireki nahi. Momentuan horrelako berriak etortzen direnean jendeak erreazionatzen zuen, baina egia da hor gertatzen dela. Azkenean itzalen mundukoak bilakatzen dira ikusten ez ditugun gauzak. Eta mundu hori atzean uztea errazagoa da.

**Militantzia politikoan jarduteagatik atxilotu zintuzten. Gaizki ikusia dago aktoreek iritzi politikoa ematea?**

Jendearen partetik ez dut uste. Zenbait hedabideak eta zenbait sektorek zure gaineko jazarpena eragin dezakete. Euskal Herrian hainbat artistarekin ikusi dugu, beste batzuekin ez. Bueltak ematen dizkiot gai honi, baina ni horrelakoa naiz eta mundua ikusteko modu bat dut. Mundua

“

*Niretzat arteak, zerbaitetarako balio baldin badu, azalpenak bilatzeko eta inguratzen gaituen kaosa ulertzeko da.*

“

*Nire gorputza, ahotsa eta emozioak dira oholtzan pertsonaiaren zerbitzura jartzen ditudanak. Oholtzan aktorea dago, pertsonaia, baina bien arteko gatazka etengabea ere.*

oso krudela da eta sistema kapitalista oso bortitza. Ni ez nago sistema honen alde eta bestelako sistema baten alde borrokatzen naiz.

**Lubaki horretan egoteak zailtasunak ekar ditzake lana bilatzeko orduan?**

Segur aski, bai. Orain arte ez naiz topatu muga handi batekin. Mugatxoak bai, gauza ezberdinetan. Etortzen denean aurre egingo diogu.

**Baina antzerkigintza, Grezian kasu, politikari lotuta egon da beti, biak izan dira konbentzitzeko armak.**

Oso bitxia da. Gaur egungo antzerkia datorkigu Erdi Aroan egonkortu zen antzerkitik eta justu hori gertatzen zen. Hau da, antzerkilariak, komedianteak, boterearen kontra zeuden, satira egiten zuten. Paradoxa

izugarria da; niretzat arteak, zerbaitetarako balio baldin badu, azalpenak bilatzeko eta inguratzen gaituen kaosa ulertzeko da. Gaur egun, munduan dagoen ezinezko ordena mundiala da. Ezinezkoa da hori zailtzan jarri gabe diskurtso berriak bilatzea. Batzuek beste gauza bat egiten dute, ez dakit sorkuntza den edo entretenimendua.

**Neoliberalismoak, artisten kasuan, segurtasuna ziurtatzen du despolitizazioaren truke?**

Arteak kultura jakin batean erabiltzen ditugun sinboloen sistema kodea eraikitzeke balio digu. Neoliberalismoak gauza bera egiten du, bere kode propioak sortu, arte oso konkretu baten bidez, zeinean ez dagoen gizakiaren nahi, behar eta zalantzei erantzuna bilatzeko helbururik, baizik eta nahi ekonomiko, transakzional, batean kokatzen du. Hor gatazka sortzen da. Egonkortasuna ematen dizut, baldin eta ez baduzu nire sistema zailtzan jartzen.

**Orain, aldiz, artista orok behar duen uste goren horretan zaudela uste duzu?**

Planeatu gabe etorri da, udazken oso bizia izaten ari da, oso polita. Oraingo disfrutatzen ari naiz, ez dakit zer etorriko den. Egia da, baina, horrek guztiak ikusgarritasunaren plaza batean jartzen zaituela, bai Durangoko Azokako kartelak, bai "Zaldi urdina" herriz herri emateak.

**Gainera, euskaraz. Zer garrantzi du zuretzat euskal sorkuntza horretan parte hartzeak?**

Oso interesgarria da Dejabu, Arte Drama eta Xutek planteatzen dutena. Elkartzaren direnean aktore batzuk gonbidatzen gaituzte beraiekin lan egitera, ikustera eta ikastera nola planteatzen duten, eta, bat-batean, lan horretan Euskal Herri bat eraikitzen ari gara. Euskarazko gauza batzuk ez lirareke ulertuko ingelesez. Horrek ematen digu sorkuntzarako kolektibo intimo eta potentea. Ez bagara herri gisa gutaz hitz egiteko gai, ez bagara gure sinboloak eraikitzeke eta partekatzeke gai, galduta gaude, ez gara sekula aske izango.

**Sortzaileak amildegiari begira bizi zaretela aipatu izan duzu. Unerik onenean, bertigoa narbaritzen duzu?**

Bai. Amildegian gaude beti, beharrezkoa da jakiteko zeri eutsi behar diogun. Presiorik ez dut sentitzen eta oso lasai nago. Azkenean saiatsen naizelako egin nahi ditudan gauza horiek guztiak sortzen. Grina horrekin nago labanaren ahoan, baina ez naiz eroriko.



ERAKUSKETAK EXPOS.

**MALKOVICH, MALKOVICH, MALKOVICH: ARGAZKILARITZAREN MAISU-MAESTREI OMENALDIA**  
SANDRO MILLER  
San Telmo Museoa  
Azaroaren 17a arte  
Hasta el 17 de noviembre

AZKEN EGUNA ULTIMO DIA

**KIPUTZ. AMILDEGIA HISTORIAURREAN UN ABISMO EN LA PREHISTORIA**  
San Telmo Museoa  
Otsailaren 16a arte  
Hasta el 16 de febrero

GAUR HOY

LITERATURA



**LITERAKTUM**  
Donostia San Sebastián  
Azaroaren 24a arte  
Hasta el 24 de noviembre  
[www.literaktum.eus](http://www.literaktum.eus)

ANTZERKIA TEATRO



**UTZI ZURE MEZUA SEINALEAREN ONDOREN**  
DEJE SU MENSAJE DESPUÉS DE LA SEÑAL TANTAKA TEATROA  
Antzoki Zaharra T. Principal  
Azaroa 21-24 Noviembre  
21-23, 20:00; 24, 19:00  
21-22 ● euskara  
23-24 ● castellano

**FLAQUE DEFRAC TO COMPAGNIE**  
Gazteszera (Egia)  
Azaroa 24 Noviembre. 19:00

**ABRE LA PUERTA**  
TEATRO DEL TEMPLE  
LITERAKTUM  
Imanol Larzabal (Lugaritz)  
Azaroa 24 Noviembre. 19:30  
● castellano

MUSIKA

**PEDRO GUERRA + SARA RÁEZ**  
Victoria Eugenia  
Azaroa 17 Noviembre  
19:00

GAUR HOY



**CURTIS HARDING**  
Antzoki Zaharra T. Principal  
Azaroa 19 Noviembre. 20:00

**MIKEL AZPIROZ: ZURI**  
Imanol Larzabal (Lugaritz)  
Azaroa 22 Noviembre. 20:00



**EILEN JEWELL + BIG BOB RAILROAD**  
DKLUBA  
Intxaurren K.E.  
Azaroa 23 Noviembre. 22:00

**OLATZ SALVADOR: ZINTZILIK**  
Victoria Eugenia  
Azaroa 24 Noviembre. 19:00

DANTZA



**HAMLET, LA DANZA DEL MELANCÓLICO**  
BALLET FLAMENCO  
JESÚS HERRERA  
Victoria Eugenia  
Azaroa 28-29 Noviembre  
20:00



DONOSTIAKULTURA.EUS/SARRERAK  
LEIHATILAK  
BAZKIDEAK: -910 / ORDU GAZTEA! 3€

